

## **Ikas-ekinezko Lanbide Heziketa - HEZIBI**

Ikas-ekinezko Heziketak, zentroak eta enpresak bateratutako prozesu hezigarriaren bitartez, ikasle-langilearen arteko lan erlazioa uztartzea posible egiten duen hura da; Lana eta ikasketak aldi berean egitea posible egiten duena beraz.

Eredu honek, enpresetara ikaskuntzaren prozesu alderdi batzuk daramatza, hauek ikasleen ikasketa prozesuaren agente erabakigarria bilakatuz. Bestetik, Lantoki eta Heziketa Zentroetan ikasketak kateatzea baimentzen du, zeharkako gaitasunak, teknikoak eta sozialak hobeto bermatzea posible eginez.

Era berean, heziketa eta lan abaguneak errazten dizkie gazteei. Enpresei aldiz, epe motz eta luzean, sistema emankorraren beharrak estaltzeko beharrezkoak diren pertsona zein kualifikazioak bermatzen dizkio.

HEZIBI Ikas-ekinezko Lanbide Heziketaren ereduak, prestakuntza zikloa edo profesionaltasun agiria lortzeko aukera emango du, ikasketak eta lana aldi berean eginez. Proiektu honetan Eusko Jaurlaritzak, ikasketa zentroek, Lanbidek eta Confebas-ek parte hartzen dute.

### **Ezaugarri nagusiak:**

- Prestakuntza- eta Ikaskuntza- kontratua.
- Enpresek, Heziketa Zentroekin batera, heziketa plana definitzen dute. Titulazio akademikoan ezarritakoaz aparte prestakuntza espezifikoa sartu ahal izanez.
- Enpresen beharretara egokitutako programa malgua.
- Ikasleak enpresan egingo duen lanak lotura estua izan behar du heziketa-zikloko lanbide-profilarekin.
- Programan parte hartzen duten ikasleak Lantokiko Prestakuntza modulua egitetik salbuetsita geratuko dira, erabat edo partzialki. Erabat salbuetsita geratzeko, kontratualdia urtebetekoa izan beharko da gutxienez.
- Proiektuari dagokion modulua enpresako lanaren testuinguruan garatu ahal izango da.
- Orokorrean, heziketa-zikloaren lehenengo ikasturtea ikastetxean egingo da eta bigarren ikasturtea, berriz, ikastetxean eta enpresan egindako txandakako ikas-ekinezko prestakuntza izango da, Prestakuntza- eta Ikaskuntza-kontratu batekin.
- Ebaluazioa zentroa eta enpresaren artean partekatuko da.

### **Norentzat da programa hau:**

- Lanbide-heziketako prestakuntza-zikloren batean matrikulatutako 16 eta 30 urte bitarteko ikasleak, baldin eta Lanbiden izena eman badute.

### **Ikas-ekinezko Heziketa eskaintzen duten zentroak Araban:**

Ciudad Jardín BHI

Mendizabala GLHBI

Egibide BHIP

Laudio LHUI

### **Intereseko loturak:**

[Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saila](#)

[Confebask](#)